

OINUTSIK JAUREGIAN

Yolanda Arrieta

Ilustratzailea: Aitziber Alonso

Ibaizabal, Bilbo, 2007

Printzesa errebeldea

Yolanda Arrietaren ipuin honek antzinako istorioen usaina du. Errege eta erregina, printzesa, gorrea musikari, mediku eta abar ageri dira kontakizun honetan. “Herrialde hartako printzesari zapata gorri-gorriak oparitu zizkieten” esaldiak ematen dio hasiera ipuin honi; eta hain zuzen ohituren eta tradizioen inguruan eraikitako istorioa dugu hau. Printzesak zapata gorriak izan behar ditu, erregeak galtzontzilo horiak eta erreginak titizorro berdeak dauzkaten bezala. Baina ipuin honetako protagonistak arazoak ditu zapata gorriekin, bere aurkezpenerako oparitu dizkieten oinetakoekin. Zapatariak, medikuak bai eta aztiak ere aztertu egingo dute arazoa, eta azken horrek zapatek ez dutela ezer, problema beste bat dela adieraziko die errege eta erregina ikaratuei. “Halako joerak aldaketa baten iragarle izan ohi dira” (10. or.) dio aztiak. Eta aldaketa horren ondorioa dugu “oinutsik jauregian” hau.

Istorio, kontakizuna eta irudiak, biek, Arrietak eta Alonsok, lan handia egin baitute, entretenigarria da, atsegina, gustura irakurtzen edo kontatzen dena. Baina hori baino berritzaileagoa dugu liburu honek hasiera ematen dion “Oker” bildumaren apustu estetikoak. Albuma estiloko liburuak dira (nahiz eta azala biguna izan eta formatua ere txikia), irudiak –gehienetan orri biak betetzen dituzten irudi iradokitzaileak- testua baino haratago doaz, informazio berria eta ugari ematen digute. Horrez gain testuarekin ere jolastu egin dute forma ezberdinak emanez, letra estilo eta neurriekin jolastuz eta, zenbaitetan, baita koloreekin ere. Testua, irudia eta maketazioa, hiru elementuen arteko konbinaketaren emaitza dira liburuak.

Oinutsik jauregian honek badu ipuin klasikoetatik, tradizioetatik, baina baita literatura berriaren ekarpenetatik. Alaba errebeldea dugu, tradizioa onartu ez eta jokabide berria hartzen duena. Izan ere, tradizioa gorde daitekeen bezala tradizioarekin hautsi daiteke, eta hori da printzesak aukeratu duena erregearen, aitaren, nahiaren kontra. Honek argi eta garbi adierazia baitzuen zein zen beren betebeharra: “-Ze aldaketa eta ze aldaketa ondo! –bota zuen-. Gurean dagokiona janzten du bakoitzak.” (12. or.), eta ondoren, hitz egin ez arren, musikariaren bitartez jakingo dugu nolakoa den maiestateen haserrea: “Musikariak fi-fi, fa-fa hasi ziren maiestateen trumoi-aurpegiak leundu guran” (20. or.).

Sarritan transtestualitateaz eta hitz egin dugunean, testu berriek lehengo beste batzuen oihartzuna dutela-eta ideia berriak azaltzeko, umorearekin jolasteko, irakurlearen interesa erakartzeko eta beste hamaika kontuetarako aproposa dela aipatu izan dugu. Kasu honetan ez dugu hipotestu ezagunik, nahiz eta batzuetan Errauskine burura etorri, baina kontestua bera tradizionala dugu, eta hor haustura bat aurki dezakegu, errebeldea puntu bat, jokabide berritzailea.

Arestian, istorio honek antzinako ipuinen usaina zuela esan dugu, eta hain zuzen antzinako itxura horrek laguntzen du mezua biguntzen, irakurlearengana era literarioagoan iristen. Izan ere giroak, errege-erreginak, musikariak, gozogileak, jauregiak –baita hau argitzeko kandelek-, urrutiko mundu batera, gezurretakoa, fikziozko mundu batera garamatzate.

Dena dela, Arrietak idatzi eta Aitziber Alonsok ilustratu duten ipuin honekin ederki goza ahal izango dugu argumentuagatik, irudiengatik, liburuaren estetikagatik, eta guk

ere, printzesak bezala, jira eta bira dantza egingo dugu ipuinaren amaierarekin bat eginez “eta musikariak fi-fi, fa-fa hasi ziren berriro. Badaezpada.”

Xabier Etxaniz Erle